6. Bat-egiteko erabakia hartu ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta bat-egitean parte hartzen duen BGAE bakoitzak egoitza soziala duen lurralde historikoan zabalkunde handia duen egunkari batean argitaratuko da.

93. artikulua. *Bat-egitearen inskripzioa.*

1. Bat-egitea Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Erregistroan inskribatu beharko da, bai eta, hala badagokio, sortzen den BGAE berria ere.
2. Ondorio horietarako, BGAEek inskripzio-eskabidea aurkeztuko dute, honako agiri hauekin batera:
 - a) Bat-egiteko proiektua.
 - b) Bat-egitean parte hartzen duen BGAE bakoitzaren batzar orokorraren bat-egiteko erabakia.
 - c) Aditu independente batek edo gehiagok bat-egiteko proiektuari buruz eta bat egiten duten BGAEek ekarritako ondareari buruz egindako txostena.



3. Bat-egitea Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan inskribatu ondoren, azkendutako BGAEen erregistro-idazpenak ezereztuko dira.

94. artikulua. *BGAE zatitzea.*

1. BGAEa zatitu ahal izango da, partzialki edo osorik, BGAElen 37. artikuluan ezarritakoaren arabera.
2. Zatitzea izan daiteke, halaber, enplegu-plan bat edo gehiago edo BGAE baten enpleguko gizarte-aurreikuspeneko plan batean sartutako kolektibo bat edo gehiago lekualdatzea, BGAElen 45. eta 46. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, BGAEa desegin gabe, eta zatitutakoa blokean lekualdatzea sortu berri den edo lehendik dauden beste BGAE batera edo batzuetara.
3. BGAEen zatiketa, aurreko zenbakietan jasotako salbuespenekin, bat-egitearen arau erregulatzaileen arabera arautuko da, aplikatzekoak diren heinean, eta BGAE partaideetako bazkideek eta hartzekodunek eskubide berberak baliatu ahal izango dituzte.

95. artikulua. *Desegitea. Kausen eraginkortasuna.*

BGAELen 38. artikuluan ezarritako desegite-arrazoien eraginkortasuna honako hauek arautuko dute:

- a) BGAElen 38.1.e) artikuluan ezarritako epea igarotakoan, eskubide osoz jardungo da, salbu eta aurretik berariaz luzatu bada, emandako botoen bi herenen gehiengoak batzar orokorrean hartutako erabakiaren bidez, eta luzapen hori Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan inskribatuta.
- b) BGAElen 38.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, desegiteko arrazoa egiaztatu dela ulertuko da, baldin eta berroreka-plana betetzeko behar diren ekarpenak egitea aurreikusita zegoen egunetik hiru hilabeteko epean ekarpen horiek planaren bazkide babesleak egin ez baditu eta 53.4.f) artikuluan ezarritako berroreka-planaren berrikuspenera egin ez bada. Hala ere, BGAEak gizarte-aurreikuspeneko bi plan edo gehiago baditu, eta ez betetzea plan guztiei buruzkoa ez bada, inguruabar hori ez da BGAE desegiteko arrazoa izango, baina BGAEak eragindako plana edo planak likidatzeko prozesua hasi beharko du.
- c) Gainerako kasuetan, batzar orokorraren erabakia beharko da, emandako botoen bi hereneko gehiengoz hartua. Kausa horietakoren bat gertatzen denean, administratzaileek batzar orokorrerako deialdia egin beharko dute bi hilabeteko epean.
- d) Batzar horretarako deirik egiten ez bada, estatutuetan ezarritako epean biltzen ez bada, edo, bilduta ere, ezin bada erabaki hori hartu, edo desegitea deklaratzearen aurkako erabakia hartzen bada, gobernu-batzordeak

inguruabar horren berri eman beharko dio gizarte-aurreikuspenaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari, eta hark desegin egingo du, BGAEa legez aurreikusitako desegite-kausaren batean sartuta dagoela egiaztatu ondoren.

- e) Desegiteko erabakia edo desegitea deklaratzeko duen administrazio-ebazpena Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan inskribatu beharko da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta sozietatearen egoitza dagoen lurralde historikoan zabalkunde handia duen egunkari batean argitaratuta.
- f) Desegindako BGAEa berriro inskribatu ahal izango da, baldin eta desegitea eragin zuen arrazoia ezabatzen bada eta bazkideei beren titulartasuneko eskubideak ordaintzen hasi ez badira. Horretarako, batzar orokorrak emandako botoen bi hereneko gehiengoz hartutako erabakia beharko da. Erabaki horrek ez du ondoriorik izango Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan inskribatu arte.

96. artikulua. *Likidazio-prozesua.*

- 1. BGAE desegin ondoren, likidazio-aldia irekiko da, bat-egitearen edo erabateko zatiketaren kasuetan izan ezik. BGAEak bere nortasun juridikoari eutsiko dio, eta, aldi horretan, izenari «likidazioan» adierazpena gehitu beharko dio.
- 2. Likidazio-aldian, batzar orokorren araubideari aplikatu beharreko lege- eta estatutu-arauak beteko dira. Likidatzaileek deituko dituzte batzar horiek, eta haien buru izango dira. Batzarretan, likidazioaren berri emango dute, interes erkideari komeni zaiona erabaki dezaten.

97. artikulua. *Likidatzaileen izendapena.*

- 1. Batzar orokorrak likidatzaile bat edo gehiago hautatuko ditu, nahitaez kopuru bakoitian. Likidatzaileei ordaindu ahal izango zaie.

Izendapenak ez du ondoriorik izango hirugarrenen aurrean Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan inskribatu arte.

- 2. Sozietatea desegin eta bi hilabete igaro ondoren likidatzaileak izendatu ez bada eta likidatzaileak onartu ez badira, gobernu-batzarreko kideek likidatzaileak izendatzeko eskatu beharko diote gizarte-aurreikuspenaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari.

98. artikulua. *Funtzioen transmisioa.*

- 1. BGAEa desegin ondoren, gobernu-batzarreko kideek ordezkaritza- eta kudeaketa-funtzioak betetzen jarraituko dute, kalterik ez eragiteko soilik, eta likidatzaileei dagozkien funtzioak utziko dituzte izendatu ondoren, eta haiekin BGAEaren inbentarioa eta balantzea sinatuko dute, likidazioa hasten den

eguna erreferentzia hartuta eta likidatzaileak beren eginkizunak betetzen hasi aurretik.

2. Gainera, likidatzaileek likidazio-eragiketak egiteko eskatutako informazioa eta aurrekariak eman beharko dituzte, hala eskatuz gero.

99. artikulua. *Likidatzaileen eginkizunak.*

1. Likidatzaileak bat baino gehiago direnean, kide anitzeko organo gisa jardun beharko dute.
2. Likidatzaileek ahalmena izango dute likidaziorako beharrezkoak diren eragiketa guztiak egiteko. Agintzen zaizkien funtzioak betetzeko, BGAEaren ordezkari izango dira epaiketan eta epaiketatik kanpo, eta BGAEa hirugarrenen aurrean behartuko dute, BGAEaren gobernu-batzarrerako ezarritako baldintza berberetan.

Bereziki, honako hauek egin beharko dituzte:

- a) 98. artikuluan aipatutako inbentarioa eta hasierako balantzea sinatzea.
 - b) BGAEaren liburuak eta gutunak eramatea eta zaintzea, eta haren ondarearen osotasuna zaintzea.
 - c) BGAEa likidatzeko egiteke dauden eragiketak eta beharrezkoak edo komenigarriak diren berriak egitea.
 - d) BGAEaren ondasunak besterentzea.
 - e) Egin gabeko kredituak erreklamatzea hirugarrenei edo bazkideei, eta kredituok jasotzea.
 - f) Transakzioak eta arbitrajeak hitzartzea, BGAEaren interesei komeni zaienean.
 - g) Hartzekodunei eta bazkideei ordaintzea eta BGAEaren gerakina transferitzea, 100. artikuluan ezarritakoaren arabera.
3. Likidatzaileen eginkizunak amaituko dira likidazioa egin delako, batzar orokorrean erabakitako errebokazioagatik edo gizarte-aurreikuspenaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzako titularren ebazpen arrazoituagatik. Likidatzaileek gobernu-batzarreko kideentzat ezarritako modu berean erantzungo dute.

100. artikulua. *Ondarearen esleipena.*

1. BGAEaren ondarea ezin izango da ez esleitu ez banatu sortutako prestazioak osorik ordaindu edo aseguratu arte.



2. Zor horiek ordaindu ondoren, ondarearen gainerakoa ordena honetan esleituko da:
 - a) Bazkideei beren izenean oraindik geratzen diren eskubideen zenbatekoa itzuliko zaie. Prestazio definituko kasuetan, likidazio-akordioaren egunean hornidura matematikoaren baliokidea den eskubide ekonomiko zehatz bihurtuko da prestazio hori.
 - b) Borondatezko erreserba-funtsak itzuliko zaizkie bazkideei, baldin eta banatzeko modukoak badira estatutuen edo batzar orokorraren erabakiz, eta estatutuetan ezarritako arauen arabera banatuko dira.
 - c) Soberakina, halakorik badago, BGAEaren estatutuetan ezarritakoari aplikatuko zaio.

101. artikulua. *Azken balantzea.*

1. BGAEaren zor guztiak ordaindu ondoren, likidatzaileek BGAEaren ondare-egoeraren azken balantzea eta ondarea banatzeko proiektua egingo dituzte, 100. artikuluan ezarritakoaren arabera.
2. Azken balantzea eta ondarea banatzeko proiektua, kontu-hartzaileen aldeko txostenarekin batera, batzar orokorrak onartu beharko ditu. Erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta sozietatearen egoitza dagoen lurralde historikoan zabalkunde handia duen egunkari batean argitaratu beharko da, eta iragarkian jaso beharko da erabaki horiei buruzko dokumentazioa sozietatearen egoitzan dagoela interesdunen eskura.

102. artikulua. *Erregistroko ezerezte.*

Likidazioa amaitu eta ondarea aurreko artikuluetan ezarritakoaren arabera banatu ondoren, likidatzaileek, azken balantzearen onarpena eta haren eragiketak jasoko dituen eskritura batean, Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroari eskatu beharko diote BGAEari buruzko idazpenak ezerezteko, eta hari buruzko liburuak eta dokumentuak gordailutu beharko dituzte, bost urtez.

XI. KAPITULUA. GOBERNU-ORGANOAK

103. artikulua. *Gobernu-organoetan parte hartzea eta ordezkatuta egotea.*

1. Bazkideek eta onuradunek BGAEen gobernu-organoetan parte hartu ahal izango dute, zuzenean edo ordezkarien bidez, beren estatutuetan ezarritakoaren arabera.

Ondorio horietarako, honako hauek hartuko dira gobernu-organotzat:

- a) Batzar orokorra.



- b) Gobernu-batzarra.
 - c) Jarraipen-batzordea, hala badagokio, lehentasunezko BGAEetan.
2. Gobernu-organoak ordezkari edo ordezkari osatuta egongo direnean, kideen kopurua estatutueta finkatuko da, betiere proportzionaltasun-irizpideekin bat etorritik.
- Negoiazio kolektiboan edo enpresa-itunean jasotako aurreikuspenen arabera sortutako enplegu BGAEetan, gobernu-organoetako partaidetza eta ordezkari estatutueta ezarritakora egokituko da, negoziazio kolektiboan edo enpresa-itunean adostutakoaren arabera.
3. Boto-eskubidea duten gobernu-organoetako kideek gobernu-organo bereko beste kide bati eskuordetu ahal izango diote botoa, berariaz eta idatziz, honako arau hauen arabera:
- a) Bilera zehatz eta jakin baterako eskuordetuko da botoa.
 - b) Botoa eskuordetzeko idazkiak eskuordetzailearen eta eskuordetzen duen pertsonaren datuak adierazi behar ditu. Eskuordetze-idatzian zehaztu ahal izango da gai-zerrendako puntu guztietarako edo batzuetarako botoa.
 - c) Edozein unetan ezeztatu ahal izango da botoa eskuordetzan ematea. Eskuordetza-ematea gobernu-organoaren bilerara joaten bada, eskuordetza baliogabetu egingo da.
 - d) BGAEaren estatutuek mugatu egin dezakete gobernu-organoko kide berari egin dakizkiokeen boto-eskuordetzeen kopurua.
4. Banakako modalitateko BGAEek zaindu beharko dute osoko bazkideek benetan parte hartzen dutela beren gobernu-organoetan. Horretarako, gobernu-batzordean mekanismo bat ezarri eta onartu beharko dute, honako hauetarako: parte-hartzea, bazkideei hauteskunde-aldien berri ematea, bazkide arruntek gobernu-organoetan duten inplikazioa eta ordezkari ezarritakora eraginkorra.
5. BGAEek ahaleginak egingo dituzte emakumeek eta gizonak ordezkari orekatua izan dezaten gobernu-batzordean eta, hala badagokio, jarraipen-batzordean, BGAEko gizonak eta emakumeek duten ehunekoaren proportzioan, parametro hauen arabera.
- a) Gobernu-batzordeak, gehienez ere bost urtean behin, BGAEak emakumeen eta gizonen ordezkari orekatua duen aztertu behar du.
 - b) Azterketa horretatik ondorioztatzen bada BGAEak ordezkari orekatuaren defizita duela, gobernu-batzordeak behar diren neurriak sustatu eta, hala badagokio, hartu behar ditu, gobernu-organoen osakeran

emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin, 5 urteko epean gehienez ere, BGAEaren bazkide eta onuradun kopuruaren proportzioan.

- c) Eusko Jaurlaritzan gizarte-aurreikuspenaren arloko eskumena duen Zuzendaritzari jakinaraziko zaizkio gobernu-organoetan emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izateari buruzko azterketa eta hori lortzeko gobernu-batzordeak hartzen dituen neurriak.

104. artikulua. *Batzar orokorra. Deialdia.*

1. Deialdian, gutxienez, bileraren eguna, ordua eta lekua adieraziko dira, lehenengo eta bigarren deialdian; horien artean, gutxienez, ordu erdi igaro beharko da, eta argi, zehatz eta behar bezain zehatz adieraziko dira gai-zerrenda osatzen duten gaiak.
2. Batzarra egin baino lehen eta deialdia egiten den egunetik aurrera, BGAEak bazkideen eskura jarri beharko du, sozietatearen egoitzan, eztabaidatu eta, hala badagokio, onartuko den dokumentazioa.

105. artikulua. *Batzar orokorraren funtzionamendua.*

1. Gobernu-batzarreko kideek batzar orokorretara joan beharko dute, eta beren ordezkariak batzarreko beste kide baten esku utzi ahal izango dute.

Estatutuek arautu beharko dute zuzendari, kudeatzaile, teknikari eta BGAEaren jardun onaren ardura duten gainerako pertsonen bertaratzea.

2. Gobernu-batzordeko presidenteak baimena eman ahal izango du beste edozein pertsona batzar orokorrean egoteko, salbu eta batzarrak berak baimen hori errebokatzen badu.

106. artikulua. *Batzar orokorraren akta.*

1. Batzar orokorraren erabakiak aktan jasoko dira. Akta hori idazkariaren titularrak idatziko du, eta akta-liburuan transkribatuko du, honako inguruabar hauek adierazita:

- a) Bileraren eguna eta lekua.
- b) Deialdia zein egunetan eta nola egin den, batzar unibertsalaren kasuan izan ezik.
- c) Deialdiaren testu osoa.
- d) Bertaratutako bazkideen kopurua, adieraziz zenbat bertaratu diren pertsonalki eta zenbat ordezkari bidez, eta batzarra lehenengo deialdian edo bigarrenegian egin den.



- e) Eztabaidatutako gaien eta jasota geratzea eskatu den mintzaldien laburpena.
 - f) Hartutako erabakien edukia.
 - g) Bozketen emaitza, erabaki bakoitza zein gehiengorekin hartu den adierazita. Aurkako botoa eman duenak hala eskatzen badu, erabakien aurka dagoela agerraraziko da.
 - h) Akta onartzea, bilera amaitzean onartu bada.
2. Bertaratutakoen zerrenda aktaren hasieran agertuko da, edo, bestela, aktari erantsiko zaio, idazkariak sinatutako eranskin baten bidez, batzordeburuaren oniritziarekin. Bertaratuen zerrenda fitxategi bidez ere osatu ahal izango da, eta euskarri informatikoan sartu.
 3. Akta batzarrak berak onartu ahal izango du, batzarra egin ondoren, edo, halakorik ezean, hogeita hamar eguneko epean nahitaez, presidenteak eta batzarrak izendatutako bi bazkidek, zeinek idazkariak gain sinatuko baitute.
 4. Batzarrera bertaratutako edozein kidek eskubidea izango du aktaren edo hartutako erabakien testu osoaren ziurtagiriak eskatzeko. Ziurtagiria egiten den egunean idazkariak emango ditu ziurtagiriok, batzordeburuaren oniritziarekin.
 5. Erabakiek hartzen diren unetik izango dituzte ondorioak, 145. artikuluan ezarritakoa salbu.
 6. Inskribatu beharreko erabakiak Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan aurkeztu beharko dira, akta onartu eta hogeita hamar eguneko epean.
 7. Gai-zerrendan jasota ez dauden gaiei buruzko erabakiak deusezak izango dira, salbu eta izaera unibertsalez egindako batzar orokorraren kasuetan.

107. artikulua. *Batzar orokorraren erabakiak jakinaraztea.*

Batzar orokorrak hartzen dituen erabakiak telematikoki jakinaraziko zaizkie bazkide arruntei eta onuradunei, hala aukeratzen duten bazkide edo onuradunei. Bestela, banaka bidalitako dokumentazio idatziaren bidez.

108. artikulua. *Batzar orokorraren erabakiak aurkaratzea.*

1. BGAEen estatutuetan jaso beharko da bazkideek eskubidea dutela batzar orokorraren erabakiak aurkaratzeko, baldin eta legearen aurkakoak badira, estatutuen aurkakoak badira edo BGAEaren edo haren bazkideen edo onuradunen interesei kalte egiten badiete bazkide baten edo batzuen edo hirugarrenen mesedetan.



2. Ez da bidezkoa izango erabaki bat aurkaratzea, baldin eta erabaki hori ondorerik gabe utzi bada edo beste batek baliozkotasunez ordeztu badu.

109. artikulua. *Gobernu-batzarra.*

Gobernu-batzordean ordezkatuta egon beharko dira bai osoko bazkideak edo arruntak, bai bazkide sustatzaile eta babesleak, eta, hala badagokio, onuradunak, BGAEaren estatutuek hala ezartzen badute. Bere eginkizunak betetzean, gobernu-batzordeak BGAEko osoko bazkideen eta onuradunen interesa baino ez du zainduko.

XII. KAPITULUA. MERKATUKO JOKABIDEAK

110. artikulua. *Gatazkak konpontzea.*

1. Gizarte-aurreikuspenaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak BGAElen eta erregelamendu honetan araututako kontrolak egingo ditu, informazio-eskubidea betetzeko eta bazkide arrunta eta onuradunak defendatzeko.
2. BGAEen estatutuek bazkideen eta onuradunen eta BGAEaren artean sortzen diren gatazkak eta erreklamazioak konpontzeko araubidea eta prozedurak ezarri beharko dituzte.
3. Nolanahi ere, beren eskubideak defendatzeko, estatutuetan arautu beharko da nola aurkeztu behar zaien erreklamazioak BGAEaren gobernu-batzordeari edo, hala badagokio, bazkidearen defentsa-erakundeari, administrazioaren edo dagokion jurisdikzioaren aurrean edozein jarduketa egin aurretik. Horri dagokionez, prozedura horri buruzko informazioa eman beharko da prestazioen erregelamenduan eta atxikitze-buletinean, eta, bereziki, bazkideari, BGAEan sartzen denean.
4. Aurreko paragrafoetan adierazitakoa gorabehera, indarrean dagoen legerian aurreikusitako beste babes-sistema batzuk edo gatazkak konpontzeko beste sistema batzuk erabili ahal izango dira, bereziki, kontsumo-araudian araututako bitartekaritza eta arbitrajea eta BGAElen 75. artikuluan aurreikusitako adiskidetzea. BGAEek babesteko edo gatazkak konpontzeko formula horien berri eman behar diete bazkideei eta onuradunei.
5. BGAEek bazkideen eta onuradunen erreklamazioei erantzun beharko diete beti, erreklamazioan horretarako adierazitako bidea erabiliz; halakorik ezean, 25.2 artikuluan xedatutakoa beteko da.

Gehienez ere hamabost eguneko epean erantzungo die galdera guztiei.

6. Bazkideen eta onuradunen eta BGAEaren artean sortzen diren gatazkak eta erreklamazioak konpontzeko prozedurei buruzko informazioa doan egongo da eskuragarri bazkide eta onuradunentzat, argi, osorik eta bitarteko elektronikoen bidez erraz eskuratzeko moduan, eta, bereziki, euskarri



iraunkor batean, webgune baten bidez edo paperean, 25. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

111. artikulua. Bazkidearen Defentsa Erakundea.

1. Banakako modalitateko BGAEek, batzar orokorraren bidez, bazkidearen defendatzaile bat izendatu beharko dute. Defendatzaile horrek, bazkide sustatzaileaz gain, bazkide onuradunen eskubideak zainduko ditu, eta aurkezten zaizkion aurretiazko erreklamazioak ebatziko ditu, gehienez ere 15 eguneko epean. Izendapen hori eta funtzionamendu-arauak gizarte-aurreikuspeneko eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari eta bazkide onuradunei jakinaraziko zaizkie.
2. BGAEek bazkidearen defendatzaile izendatu beharko dituzte arlo horretan ezagutza ekonomiko-finantzarioa edo juridikoa duten eta ospe aitortua duten entitate edo aditu independenteak.
3. Erreklamatzailerik ez dituzte inola ere beren gain hartuko bazkidearen defentsa-erakundearen izendapen-, funtzionamendu- eta ordainketa-gastuak, eta ezingo diote eragin gizarte-aurreikuspeneko planei atxikitako ondareari.

112. artikulua. Administrazio-babesa.

1. Eusko Jaurlaritzan gizarte-aurreikuspenaren arloko eskumena duen sailak erantzungo die bazkideek eta onuradunek aurkeztutako kexa eta erreklamazioei, erreklamaturako BGAEek indarrean dagoen araudia ustez ez betetzeagatik sortzen badira.
2. Gizarte-aurreikuspenaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak txosten arrazoituen bidez erantzungo die aurkeztutako kexa eta erreklamazioei, eragindakoei entzun ondoren. Txosten horiek ez dira inola ere administrazio-egintza errekurragarriak izango.
3. Aurreko 2. paragrafoan aipatutako txostenen ondorioz gizarte-aurreikuspeneko eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak egindako errekerimenduei jaramonik ez egiteak, kasuen arabera, BGAElen XIII. kapituluaren tipifikatutako arau-hausteei dagozkien administrazio-zehapenak ezartzea ekarriko du.
4. BGAE batek gardentasun-arauak, bazkideak edo onuradunak babesteko arauak edo jardunbide egokiak behin eta berriz edo modu larrian urratu izanaren zantzuak hautematen direnean, Eusko Jaurlaritzan gizarte-aurreikuspenaren arloko eskumena duen sailak dagozkion neurriak hartuko ditu gainbegiratze-prozedura baten esparruan.

XIII. KAPITULUA. DATU PERTSONALEN BABESA ETA ERRESILIENTZIA OPERATIBO DIGITALA

**113. artikulua. Datuen konfidentzialtasuna.**

Administrazioaren eta BGAEen zerbitzura dauden langileak beren eginkizunak betetzean ezagutzen dituzten datuen konfidentzialtasunari buruzko arauen mende egongo dira, BGAElen 79. artikuluan eta datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan ezarritakoarekin bat etorritik, eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (95/46/EE Zuzentaraua) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa indargabetzen duena, edo horiek ordeztzen dituen beste edozein arau betez, hargatik eragotzi gabe Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroaren publizitate material eta formalaren printzipioa.

114. artikulua. Erresilientzia operatibo digitala.

1. Erresilientzia operatibo digitalaren maila handia lortze aldera, BGAEek gobernantzako eta kontroleko barne-esparru bat izango dute, informazioaren eta komunikazioaren teknologiekin (aurrerantzean, IKT) lotutako arriskuaren kudeaketa eraginkor eta zuhurra bermatuko duena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2022ko abenduaren 14ko 2022/2554 (EB) Erregelamenduan, finantza-sektorearen erresilientzia operatibo digitalari buruzkoan eta 1060/2009 (EE), 648/2012 (EB), 600/2014 (EB), 909/2014 (EB) eta 2016/1011 (EB) Erregelamenduak aldatzen dituenean xedatutakoaren arabera.
2. Gobernu-batzordeak IKTekin lotutako arriskuaren kudeaketa-esparruarekin zerikusia duten xedapen guztiak zehaztu, onartu eta gainbegiratu dituzte, eta idatziz dokumentatu beharko dira. Horretarako, gobernu-batzordeak bere gain hartuko du BGAEaren IKTekin lotutako arriskua kudeatzeko azken erantzukizuna.
3. BGAEek IKTekin lotutako arriskua kudeatzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko lanak kanpora atera ahal izango dituzte. Kanporatze hori gertatzen den kasuetan, BGAEa izango da IKTekin lotutako arriskuaren kudeaketaren arloko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko erantzukizun osoa izango duena.
4. BGAEek eskatzen duten gizarte-aurreikuspeneko eta zibersegurtasuneko agintari eskudunei informazio osoa eta eguneratua emango diete IKTekin lotutako arriskuari buruz eta arrisku hori kudeatzeko esparruari buruz.

XIII. KAPITULUA. ARAUBIDE BEREZIA DUTEN BEREIZI GABEKO ERAKUNDEAK**115. artikulua. Aplikatu beharreko araudia.**



1. BGAEen 7.b) .4 artikuluan araututako BGAEek, BGAEren 25. artikuluan ezarritako kontingentziak estaltzen dituztenek, aseguru pribatuen oinarritzko araudian ezarritakoaren eta kapitulu honetan ezarritakoaren arabera egingo dute beren jardura.
2. Aseguru pribatuen oinarritzko araudia aplikatzeagatik erakunde horietakoren batek aseguru-erakunde izaera galtzen badu, Eusko Jaurlaritzan gizarte-aurreikuspenaren arloko eskumena duen sailak ezarritako araudiaren arabera arautuko dira, eta, nolanahi ere, 87., 117. eta 118. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

116. artikulua. Prestazioak.

1. BGAEek zuzenean eta osorik hartuko dituzte beren gain bazkideei aseguraturako arriskuak, berraseguruan lagatzeko eragiketak alde batera utzi gabe.
2. BGAElen ezarritakoaren arabera, arrisku horiek estaltzen dituzten BGAEek ezin izango dituzte estali BGAElen 24. artikuluan aurreikusitako gainerako kontingentziak.

117. artikulua. Finantza-kontroleko batzordea.

1. Kontrol Finantzarioko Batzordea organo sozial beharrezkoa izango da urteko kontuak kontu-auditoretzaren mende jarri behar ez dituzten BGAEentzat. Kontu-auditoretzaren mende jartzen diren BGAEen kasuan, legez horretara behartuta egon zein ez, finantza-kontroleko batzordea aukerako gizarte-organoa izango da.
2. Finantza-kontroleko batzordea gobernu-batzordeko kide ez diren hiru bazkidek osatuko dute, batzar orokorrak hautatuta.
3. Finantza-kontroleko batzordearen funtzionamendu-araubidea honako hauetara egokituko da:
 - a) Gutxienez urtean behin bilduko dira BGAEaren finantza- eta ondare-egoera egiaztatzeko, eta idatzizko txosten bat idatziko dute ohiko batzar orokorrean aurkezteko.
 - b) BGAEaren estatutuetan ezarriko dira haren funtzionamenduari buruzko gainerako alderdiak, kideak hautatzeko sistema, karguaren iraupena eta, hala badagokio, berrautapena.
4. Kapitulu honetako BGAEak, honako baldintza hauek betetzen badituzte, ez dira kontu-auditoretzaren mende egongo:
 - a) Prima aldakorrean jardutea.
 - b) Hornidura teknikoen balioa 300.000 eurotik gorakoa ez izatea.



c) 200 bazkide baino gehiago ez izatea.

118. artikulua. *Bazkideei informazioa ematea.*

1. BGAElen 25. artikuluan jasotako prestazioak ematen dituzten BGAEek honako informazio hau bidali beharko diete bazkideei edo eskura jarri beharko dute bide telematikoz:
 - a) BGAEaren estatutuak.
 - b) Estatutuen aldaketak, onartu aurretik eta, hala badagokio, onartu ondoren.
 - c) BGAEaren administrazio-gastuak.
 - d) BGAEaren gobernu-organoen osaera.
 - e) BGAEaren urteko kontuak.
2. Nolanahi ere, bazkide batek berariaz eskatzen badu artikulua honetan jasotako apartaturen bat modu arrazoituan, gobernu-batzarrak eman egin beharko die.

**III. TITULUA. GAINBEGIRATZEKO, KONTROLATZEKO, IKUSKATZEKO
ETA ESKU HARTZEKO ARAUBIDEA**

I. KAPITULUA. GAINBEGIRATZEA

119. artikulua. *Ikuskapenaren irismena.*

1. Gizarte-aurreikuspenaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak honako hauek gainbegiratzeko ditu: BGAEak, erakunde gordailuzainak, pertsona aktuarioak, benetako zuzendaritza betetzen duten pertsonak eta erregelamendu honetan aurreikusitako funtsezko eginkizunak betetzen dituztenak, eginkizunak eskuordetu edo kanpora atera dituzten erakundeak edo pertsonak, edo bazkide sustatzaileak.
2. Gainbegiratzean, etengabe egiaztatuko da BGAEen jarduera behar bezala gauzatzen dela eta aplikatu beharreko araudia betetzen dela, bai eta haien finantza-egoera eta merkatuko jokabideak eta bazkideen eta haien BGAEen arteko harremanak ere.
3. Era berean, gainbegiratzeko merkatuko jokabideei buruzkoa izango da, eta BGAEen gardentasuna eta garapen ordenatua zainduko ditu, bai eta, oro har, bazkideen eta onuradunen babesa ere, eta helburu horiek lortzeko behar den informazio guztia zabaltzea sustatuko du, erregelamendu honetan eta berau garatzeko arauetan xedatutakoarekin bat etorritik.
4. Gainbegiratzeko funtzioa betetzean, behar bezala bermatuko da informazio konfidentzialaren babesa.

120. artikulua. *Gainbegiratzeko ahalmen orokorrak.*

1. Gizarte-aurreikuspeneko eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak, gainbegiratze-eginkizunak betez, ahalmen hauek izango ditu:
 - a) BGAEek beren jarduera erregulatzen duten arauak betetzen dituztela bermatzeko beharrezkoak diren prebentzio- eta zuzenketa-neurriak hartu ahal izango ditu.
 - b) Ikuskapena egiteko beharrezkoa den informazio guztia eskatu ahal izango du, 122. artikuluekin bat etorriz.
 - c) Indarrean dagoen legerian aurreikusitako neurri guztiak hartu ahal izango ditu, egokia denean, BGAEei eta administrazio- edo zuzendaritza-organoetako kideei edo horiek kontrolatzen dituzten pertsonen dagokienez. Horretarako, pertsona eta BGAE horiei eskatu ahal izango die aditu independenteen edo barne-kontrolako edo araudia betetzeko organoen auditoreen txostenak aurkezteko.
2. Ahalmen horiek baliatu ahal izango dira, halaber, kanpora ateratako jardueren dagokienez.
3. Gainbegiratze-jarduerak Eusko Jaurlaritzan gizarte-aurreikuspenaren arloko eskumena duen saileko funtzionarioek egingo dituzte.
4. Gainbegiratze-jarduketak BGAEaren egoitza sozialean egin ahal izango dira, haren sukurtsaletako edozeinetan, jarduera osorik edo partzialki egiten duen lekuan, zerbitzuak, eginkizunak edo jarduerak ematen diren lokaletan, baldin eta kanpora aterata badaude, eta gizarte-aurreikuspeneko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren bulegoetan, baldin eta bertan azter badaitezke gainbegiratze-jarduketa horiek egiteko baliatzen diren elementuak.
5. Gainera, ikuskapena ikuskapen-prozeduraren bidez egin ahal izango da, II. tituluko XIV. kapituluan ezarritako baldintzetan.

121. artikulua. *Administrazioari eman beharreko gutxieneko informazioa.*

BGAEek gutxieneko informazio hau eman behar diote gizarte-aurreikuspenaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari, II. tituluko XIII. kapituluan araututako salbuespenarekin:

- a) Inbertsio-printzipioen deklarazioa.
- b) Urteko kontu ikuskatuak eta kudeaketa-txostena.
- c) Txosten aktuariala, hala badagokio.
- d) Aktiboak kudeatzeko, baloreak eta aseguruak gordailutzeko eta zaintzeko, funtsezko funtzioak kanpora ateratzeko, IKTekin lotutako arriskua kudeatzeko

baldintzak betetzen direla egiaztatzeko edo beste edozein jardueratarako hirugarren pertsonekin egindako kontratuak.

122. artikulua. *Gainbegiratzeko eman beharko den informazioa.*

1. BGAEek Eusko Jaurlaritzan gizarte-aurreikuspenaren arloko eskumena duen sailari emango diote gainbegiratze-eginkizunak betetzeko behar den dokumentazioa eta informazioa, bai aldiketa aurkeztuz, bai sail horrek igorritako banakako errekerimenduei erantzunez, ikuskapen-jardueretan egiten direnak barne.

Informazioak barne hartuko du, gutxienez, gainbegiratze-prozesuaren esparruan jarduketa hauetarako beharrezkoa dena:

- a) Honako hauek ebaluatzeko: BGAEen gobernu-sistema, egiten duten jarduera, kaudimenaren ondorioetarako aplikatutako balorazio-printzipioak, hartutako arriskuak eta arriskuak kudeatzeko sistemak, bai eta haien finantza-bermeak eta kudeaketa ere.
 - b) Gainbegiratze-ahalmenak erabiliz erabaki egokiak hartzeko.
2. BGAEei eskatu beharreko informazioaren artean, hala badagokio, honako hauek egongo dira:
 - a) behin-behineko barne-txostenak,
 - b) ebaluazio eta hipotesi aktuarial zehatzak,
 - c) aktiboari eta pasiboari buruzko azterlanak,
 - d) inbertsio-politikaren printzipioekiko koherentziaren frogak,
 - e) ekarpenak aurreikusitakoaren arabera ordaindu direla frogatzen duten frogak,
 - f) urteko kontuak ikuskatzeaz arduratzen den pertsonaren txostenak.
 3. Eusko Jaurlaritzan gizarte-aurreikuspenaren arloko eskumena duen sailak bitartekarien esku dauden kontratuei edo hirugarrenekin egindako kontratuei buruzko edozein informazio eskatu ahal izango du. Era berean, informazioa eskatu ahal izango die kontu-auditoreei, jarduleei eta erakundeetako kanpoko beste aditu batzuei.
 4. 1., 2. eta 3. paragrafoetan aipatzen den informazioak datu kualitatiboak edo kuantitatiboak bilduko ditu, datu historikoak, egungoak edo aurreikusitakoak, eta barneko edo kanpoko iturrietatik datozenak, edo horien edozein konbinazio egoki, eta honako printzipio hauen arabera egingo da:
 - a) BGAEaren jardueraren izaera, tamaina eta konplexutasuna islatu beharko ditu, eta, bereziki, jarduera horri datxezkion arriskuak.



- b) Irisgarria, konparagarria eta koherentea izan beharko du denboran, eta osoa.
 - c) Egokia, fidagarria eta ulergarria izan beharko du.
5. BGAEek sistema eta egitura egokiak izan beharko dituzte 1. paragrafotik 4.era ezarritako baldintzak betetzeko, bai eta politika idatzi bat ere, BGAEaren gobernu-batzordeak onartua, aurkeztutako informazioa etengabe egokitzen dela bermatzeko.

123. artikulua. *Kanporatutako funtzioak eta jarduerak gainbegiratzea.*

1. BGAEek eginkizun edo jarduera bat kanpora ateratzen dutenean, kanpora ateratako zerbitzua ematen duenak gizarte-aurreikuspenaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari lagundu beharko dio kanpora ateratako funtzioa edo jarduera gainbegiratzeari dagokionez, eta eginkizun edo jarduera horiei buruzko informazioa emango die BGAEei, haien kontu-auditoreei eta gizarte-aurreikuspenaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari.
2. Kanpora ateratzen diren BGAEek behar diren neurriak hartuko dituzte, zerbitzu kanporatua ematen dienaren informazio- eta sarbide-betebehar horiek betetzen direla bermatzeko, bai eta zerbitzu-emailearen merkataritza-lokaletarako benetako sarbidea bermatzeko ere.

124. artikulua. *Ikuskapenaren edukia.*

1. Finantza-egoeraren ikuskapena aurrera begirako eta arriskura bideratutako planteamendu batean oinarrituko da, eta, bereziki, honetan datza: gainbegiraturako BGAEaren jarduera guztietarako, gobernu-sistema, kaudimena, hornidura teknikoen eraketa, aktiboak eta funts propioak egiaztatzean, aplikatzekoak diren arauen arabera, eta indarrean dagoen legerian ezarritako betebehar guztiak betetzen direla egiaztatzean.

Gainera, zerbitzu bat emango dela bermatzen duten BGAEak direnean, ikuskapena hedatuko da BGAEek dituzten baliabide teknikoetara ere, egiteko konpromisoa hartu duten eragiketak gauzatzeko.

2. Eusko Jaurlaritzan gizarte-aurreikuspenaren arloko eskumena duen sailak berrikusi eta ebaluatuko ditu BGAEek indarrean dagoen araudian jasotako xedapenak betetzeko ezarritako estrategiak, prozesuak eta informazio-prozedurak.

Berrikuspenean eta ebaluazioan honako hauek aztertuko dira: BGAEaren gobernu-sistemari buruzko baldintza kualitatiboak, BGAEek aurre egin beharreko edo aurre egin beharreko arriskuak, eta BGAE horiek arrisku horiek ebaluatzeko duten gaitasuna, beren jarduera garatzen duten ingurunea kontuan hartuta.



Aurreko paragrafoan aipatzen diren ebaluazioek kontuan hartuko dute BGAEak bere egungo eta etorkizuneko funtzionamendu-kostuak estaltzeko finantza-baliabide nahikorik ez izatearen arriskua.

3. Berrikuspen-prozesuaren barruan, gizarte-aurreikuspenaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak eta BGAE bakoitzak, gutxienez hiru urtean behin, aldizkako ikuskapen-elkarrizketa bat izango dute.
4. Bereziki, ikuskapena egitean, honako alderdi hauek betetzen direla berrikusi eta ebaluatuko da:
 - a) funtzionamendu-baldintzak,
 - b) hornidura teknikoak,
 - c) hornidura teknikoen finantzaketa,
 - d) funts propioak eskatzea,
 - e) nahitaezko segurtasun-marjina,
 - f) inbertsio-arauak,
 - g) inbertsioen kudeaketa,
 - h) gobernantza-sistema, eta
 - i) bazkideei eta onuradunei eman beharreko informazioa.
5. Eusko Jaurlaritzan gizarte-aurreikuspenaren arloko eskumena duen sailak ebaluatuko du BGAEen metodoak eta jardunbideak egokiak diren, BGAEaren finantza-egoera orokorrean eragin negatiboa izan dezaketen ekonomia-baldintzen balizko edo etorkizuneko aldaketak zehazteko. Era berean, BGAEek balizko gertaerei edo baldintza ekonomikoen etorkizuneko aldaketei aurre egiteko duten gaitasuna ebaluatuko du.
6. Gainbegiratzean zehar antzemandako gabeziak edo gabeziak konpondu beharko dituzte BGAEek.
7. Gainbegiratze-eginkizunari dagokionez BGAEek aurkeztu beharreko dokumentazioaren egitura, edukia, ereduak eta epeak, estatistika- eta kontabilitate-informazioari buruzkoa barne, gizarte-aurreikuspeneko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzako titularraren ebazpen bidez onartuko dira.

125. artikulua. *Aldizkako ikuskapen-elkarrizketa.*

1. 121.3 artikuluan aipatzen den aldizkako ikuskapen-elkarrizketak kalteberatasunak, eraginkortasunik ezak eta egiturazko erronkak goiz hautematea hartuko du bere baitan, eta BGAEaren epe luzerako



egokitasunari, efizientziari eta iraunkortasunari buruzko hausnarketa estrategikoa sustatuko du, baita haren eskalaren egokitzapenari, aktiboak sendotzeko, lankidetzan aritzeko edo bateratzeko gaitasunari eta haren antolamendu-konfigurazioaren egokitasunari buruzkoa ere, modu eraginkorrean funtzionatzeko eta bazkideei eta onuradunei balioa emateko.

2. Aldizkako ikuskapen-elkarritzeta alerta goiztiarreko parametro multzo batean oinarrituko da, gutxienez honako elementu hauek barnean hartuta:
 - a) BGAEaren administrazio-, transakzio- eta inbertsio-kostuen maila eta bilakaera,
 - b) errendimendu-tasa garbia eta BGAEaren aktiboen arriskuari egokitua,
 - c) agindutako edo aurreikusitako prestazioen mailetan edozein defizit edo desbideratze,
 - d) bazkide eta onuradun aktiboen kopurua eta bilakaera,
 - e) eraginkortasun operatiboaren, arrisku-kontzentrazioaren eta erresilientzia instituzionalaren adierazleak.
3. Aldizkako ikuskapen-elkarritzetaren emaitzak balizko ahuleziak edo hutsuneak adierazten dituenean, gizarte-aurreikuspenaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzak BGAEari eskatuko dio aukera estrategiko egokiak azter ditzala epe luzerako bideragarritasuna indartzeko eta erretiro-prestazioak bazkideei eta onuradunei benetan emateko, eta, bereziki, eskala operatiboa, sendotzea, lankidetzak, aktiboak bateratzea edo baliabideak partekatzeko akordioak hobetuko dituzten neurriak.
4. Hutsune nabarmenak antzemanaz gero, edo 24.1 artikuluan aipatzen den errendimendua nahikoa ez bada, gizarte-aurreikuspenaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzak ekintza zuzentzaileen plan bat egiteko eskatuko dio BGAEari. Plan horretan, antzemandako gabezia esanguratsuak edo errendimendu eskasa konpontzeko neurriak, epeak eta gobernantza-mekanismoak ezarriko dira. Plan horrek efizientzia eta kudeaketa ona hobetzeko egiturazko neurriak hartuko ditu kontuan, baita, hala dagokionean, aktiboak edo baliabideak modu partekatuan erabiltzeko akordioak finkatzeko, lankidetzan aritzeko eta bateratzeko aukera ere.

BGAEaren gobernu-batzordeak lehenengo paragrafoan aipatzen den plana onartzen duela egiaztatuko da, eta gizarte-aurreikuspenaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzari aurkezten diola, berrikusi eta onar dezan.

BGAEak aldizka informatu beharko du paragrafo honen lehen lerrokadan aipatzen den planaren gauzatzeari buruz eta plan hori gauzatzean lortutako edozein aurrerapeni buruz, gizarte-aurreikuspenaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzak hala eskatzen duenean.



5. Eusko Jaurlaritzan gizarte-aurreikuspenaren arloko eskumena duen Zuzendaritzak honako hauek egin beharko ditu:

- a) aldizkako ikuskapen-elkarritzeta bakoitzaren emaitza dokumentatzea, eta
- b) dagokion BGAEari gomendioak egitea.

Paragrafo honetako b) letran aipatzen diren gomendioek ez diete kalterik egingo Eusko Jaurlaritzan gizarte-aurreikuspenaren arloko eskumena duen Zuzendaritzak ikuskapen-neurri lotesleak hartzeko dituen ahalmenei.

126. artikulua. *Gainbegiratze-jardueraren gardentasuna.*

- 1. Eusko Jaurlaritzan gizarte-aurreikuspenaren arloko eskumena duen sailak modu garden, independente eta arduratsuan gainbegiratuko du, informazio konfidentzialaren babesa behar bezala bermatuz.
- 2. Eusko Jaurlaritzan gizarte-aurreikuspenaren arloko eskumena duen sailak, gainbegiratzearen gardentasuna zaintzeko, informazio hau zabalduko du:
 - a) Lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenen testua, eta BGAEen eremuko orientabide orokorrak.
 - b) Europar Batasunaren araudian aurreikusitako aukerak erabiltzeari buruzko erabakia.
 - c) Gainbegiratze-berrikuspenaren prozesuari buruzko informazioa.
 - d) Zuhurtziazko arauen aplikazioaren funtsezko alderdiei buruzko datu estatistiko agregatuak.
 - e) Gainbegiratzearen helburuak eta ikuskatzeko eginkizun eta jarduera nagusiak.
 - f) Administrazio-zehapenei buruzko arauak eta arau-hausteei aplikatzen dakizkiekeen beste neurri batzuk.
 - g) Hala badagokio, BGAEei zuzendutako gida teknikoak.

II. KAPITULUA. IKUSKAPENA

127. artikulua. *Ikuskapen-jarduerak.*

- 1. Ikuskapena ikuskapen-prozeduraren bidez egin ahal izango da.
- 2. Ikuskapen bidezko gainbegiratze-prozedura administratiboa gizarte-aurreikuspeneko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzaren titularraren ebazpen bidez hasiko da, eta ebazpen hori ikuskatutako BGAEari edo pertsonari jakinaraziko zaio. Ebazpen horretan, Eusko Jaurlaritzan



gizarte-aurreikuspenaren arloko eskumena duen saileko funtzionarioek egingo dituzten ikuskapen-jarduketak nork agintzen dituen identifikatuko da, eta egin beharreko egiaztapenen xedea adieraziko da.

3. Funtzionarioek, beren eginkizunak behar bezala betetzeko, BGAEaren eragiketei buruzko liburuak, erregistroak eta dokumentuak aztertu ahal izango dituzte, euskarria edozein dela ere, programa informatikoak eta artxibo magnetikoak, optikoak edo beste edozein motatakoak barne. Era berean, kopia bat aurkezteko edo emateko eskatu ahal izango dute, ikuskapen-txostenean sar dadin, eta hura behartuta egongo da hori egitera eta bere zeregina betetzeko ahalik eta erraztasun gehien ematera. Ikuskatutako pertsonak edo BGAEak arrazoi funtsatuak baditu, dokumentazioaren kopia entregatzearen aurka egin ahal izango du, arrazoiak idatziz argudiatuz ikuskapen-txostenean sartzeko.
4. Funtzionarioek BGAEaren edo ikuskatutako pertsonaren egoitza sozialera eta jarduerak garatzen dituzten sukurtsal, lokal eta bulegoetara sartzeko aukera izango dute. Ikuskaritzak ikuskatutako BGAEari edo pertsonari eskatu ahal izango dio hirugarrenei komunikazioak bidal diezazkiela argibideak edo informazioa eskatzeko, saldoak berresteko edo ikuskatutako BGAEak edo pertsonak adierazitako egitateen egiazkotasuna, ikuskapenari erakutsitako dokumentuen egiazkotasuna edo eragiketa jakin batzuen irismena eta ondorioak zehazteko.
5. Ikuskapen-jarduketak ikuskapen-aktetan dokumentatuko dira. Nolanahi ere, ikuskapen-akten parte izango dira, ondorio guztietarako, eranskinak eta ikuskatzaileak egiaztapen-jardueran egindako eginbideak. Ikuskapen-aktak dokumentu publikoak dira, eta haietan jasotako eta ikuskatzaileak egiaztatutako egitateen froga izango dira, kontrakoa egiaztatzen ez bada.
6. Ikuskapen-akta interesdunari jakinaraziko zaio, eta hark hamabost egun izango ditu alegazioak egiteko eta bere eskubidea defendatzeko egokitzen jotzen dituen frogak proposatzeko gizarte-aurreikuspeneko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailean. Frogak proposatzen badira eta onartzen badira, gehienez ere hamar eguneko epean egin beharko dira.
7. Baldin eta, BGAE interesdunaren alegazioen ondoren eta, hala badagokio, froga egin ondoren, ikuskapen bidezko gainbegiratze-prozedura administratiboaren instrukzio-jarduketa berriak egiten badira, akta osagarri batean jasoko dira, eta beste entzunaldi-izapide bat egingo da hari zortzi eguneko epean.
8. Egindakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzan gizarte-aurreikuspenaren arloko eskumena duen Zuzendaritzako titularrak ebazpena emango du, eta ebazpen horrek amaiera emango dio administrazio-bideari. Ikuskapen-aktak neurri zuzentzaileak hartzeko, baimena baliogabetzeko edo BGAEa administratiboki desegiteko proposamena jasotzen badu, ebazpenak, hala badagokio, neurri zuzentzaile egokiak hartuko ditu, eta BGAEa desegiteko edo administrazio-baimena baliogabetzeko prozedura hasiko du.

9. Akta egin aurreko ikuskapen-jarduketek, ikuskapena agintzen duen Eusko Jaurlaritzan gizarte-aurreikuspenaren arloko eskumena duen Zuzendaritzako titularraren ebazpenetik aurrera, ikuskapen-ebazpen horretan jasotako agindua behar bezala betetzeko behar den iraupena izango dute. Ikuskapen-akta jakinarazi ondoren, ebazpena jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da. Aurreko 7. apartatuan aurreikusitako kasuan, epe hori akta osagarria jakinarazten denetik aurrera zenbatuko da.

128. artikulua. *Ikuskatze-lanari aurka egitea edo uko egitea.*

1. Ikuskapen-jarduerari aurka egitea edo uko egitea izango da ikuskatutako BGAEaren edo pertsonaren ekintza edo ez-egite oro, baldin eta ikuskatze-jarduera bidegabe luzatu, oztopatu edo eragozten badu.
2. Bereziki, honako hauek hartuko dira ikuskapen-jardueraren aurkakotzat edo negatibotzat:
 - a) BGAEaren ordezkariari edo ikuskatutako pertsonari, edo haren agenteei edo langileei berehala entregatzea honako hauek: ikuskapen bidezko gainbegiratze-prozedura hastea erabakitzen duen ebazpena, ikuskatze-jardueran egindako eginbideak, aurretiazko edo behin betiko aktak, edo gizarte-aurreikuspeneko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren edo egiaztatze-jarduketak agindu zaizkien funtzionarioen idatzizko edozein komunikazio.
 - b) Indarreko legeen arabera ikuskatzaileak errekeritutako pertsona jarduketak hasteko, garatzeko edo amaitzeko ezarritako tokian, egunean eta orduan ez agertzea, behar bezala justifikatutako arrazoi nahikorik egon ezean.
 - c) Nahitaez eraman eta kontserbatu beharreko liburuak, erregistroak eta dokumentuak erakusteari uko egitea.
 - d) Ikuskatzaileek eskatutako datuak, txostenak, egiaztagiria eta aurrekariak ez ematea edo emateari uko egitea, bai eta datu horiek aldatzea edo manipulatzeko ere.
 - e) Behar ez bezala ukatzea edo oztopatzea ikuskapena egoitza sozialean, agentzietan, sukurtsaletan, ikuskatutako BGAEaren edo pertsonaren jarduera garatzen den edo eskatutako dokumentazioa dagoen lokaletan eta bulegoetan sartzeko edo egotea, bai eta leku horien kokapena oztopatzea ere.
 - f) Ikuskapenari mehatxuak edo derrigortzeak dakartzkioten jarrerak, edo ikuskapen-egiaztapenak behar ez bezala luzatzen dituztenak.

III. KAPITULUA. KONTROLA

129. artikulua. *Barne-kontrolerako eta partaidetzarako mekanismoak.*



1. Erregelamendu honen eraginpeko BGAEek administrazio- eta kontabilitate-antolaketa egokia bermatuko dute.
2. Era berean, beren antolaketari eta operatibari buruzko barne-kontroleko prozedurak izango dituzte, BGAEarentzat lan egiten duten langileek ondo funtzionatzen dutela zaintzeko, bai eta BGAEek beren bazkide arrunten eta onuradunen aurrean haien inguruko gaitan, hala nola informazioari edo partaidetzari buruzkoetan, jarduten dutela zaintzeko ere.
3. Prozedura idatziak ere izango dituzte inbertsioen arriskuak kudeatzeko.

130. artikulua. *Kontu-auditoretza.*

BGAEek kanpo-auditoretzaren mende jarri beharko dituzte urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, Kontu Auditoretzaren Legean eta hura garatzeko arauetan ezarritako baldintzetan eta erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera.

IV. KAPITULUA. ESKU-HARTZEA

131. artikulua. *Administrazioaren esku-hartzea.*

1. BGAElen 65. artikuluan xedatutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzan gizarte-aurreikuspenaren arloko eskumena duen sailak BGAEaren esku-hartzea erabaki ahal izango du, bazkideen, onuradunen eta ukitutako hirugarrenen interesak babesteko.
2. Kontu-hartzailetzako zereginak Eusko Jaurlaritzan gizarte-aurreikuspenaren arloko eskumena duen saileko funtzionarioek beteko dituzte. Funtzionario horiek gizarte-aurreikuspeneko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzak izendatuko ditu, eta inola ere ez dira izango BGAEaren ordezkari.
3. Administrazioaren esku-hartzea erabakitzen duen ebazpena jakinarazten den egunetik aurrera hartzen diren BGAEko edozein organoren egintzak eta erabakiak ez dira baliozkoak izango, eta ezin izango dira gauzatu kontu-hartzailetzaren esanbidezko onespenerik gabe. Onarpen horretatik kanpo geratzen da BGAE kontu-hartzaileak antolamenduko eta ikuskapeneko administrazio-egintzen aurka edo kontu-hartzailetzaren jarduerarekin lotuta akzioak edo errekursoak erabiltzea.

132. artikulua. *Likidazioaren kontu-hartzea.*

1. Bazkideen ehuneko hogeik Eusko Jaurlaritzan gizarte-aurreikuspeneko eskumena duen Sailari eskatu ahal izango dio kontu-hartzaile bat edo batzuk izenda ditzala likidazio-eragiketak fiskalizatzeko.
2. Likidatu beharreko ondarea handia denean, bazkide asko dagoenean edo likidazioa garrantzitsua denean beste edozein arrazoiengatik, organo eskudunak, ofizioz edo alderdi interesdunak eskatuta, pertsona bat edo



batzuk izendatu ahal izango ditu likidazioan esku hartzeko eta BGAEaren legeak eta estatutuak betetzen direla zaintzeko.

3. Kontu-hartzaileak izendatzen badira, likidatzaileen egintzek ez dute baliorik izango, baldin eta kontu-hartzaileek parte hartu ez badute.

133. artikulua. *Esku-hartzearen jarduketa.*

1. Esku-hartzeak arau hauen arabera jardungo du:

- a) Eginbidea egingo du BGAEaren egoitza sozian, eta, eginbide horretan, hauek jasoko ditu: karguaz jabetzea, bertaratzen diren pertsonak, likidaziorako eta kontu-hartzailetzako eginkizunak garatzeko izan daitezkeen gorabeherak eta zailtasunak.
 - b) Bere jarduketak eta egiaztapenak txosten, eginbide, baimen edo ukapenetan egiaztatu ahal izango ditu, eta horien kopia emango dio BGAEaren legezko ordezkariari.
 - c) Eginbideak egin ahal izango ditu BGAEari, hala badagokio, egiten dizkion errekerimenduak eta ohartarazpenak dokumentatzeko. BGAEak egin nahi dituen adierazpenak dokumentu bereizi batean jasoko dira.
 - d) Administrazioaileei eskatuko die ahalik eta lasterren eman dezatela aktiboaren eta pasiboaren balio errealak ezagutzeko behar den dokumentazio guztia, BGAEaren benetako egoera zehaztu ahal izateko eta BGAEa betebeharrak betetzeko moduan dagoen egiaztatu ahal izateko.
 - e) BGAEaren ondarearen aldaketak ahalik eta modu eraginkorrean kontrolatzeko behar diren neurriak hartuko ditu, dagozkion erregistroetan idatzoharrak eginez, BGAEaren jabetzako ondasunen eta baloreen gordailuzainei eta kontu-hartutako BGAEaren kontuak dituzten kreditu-erakundeei behar diren jakinarazpenak eginez, eta jakinaraziko die ezin izango direla erabili berriazko baimenik gabe.
 - f) Likidatzaileei eta BGAEari aginduko die ez dezatela ordainketarik egin haien esku-hartzerik gabe, salbu eta horretarako ematen dituen jarraibideetara egokitzen badira, eta diru-sarrerak kontu-hartzailetzak berak adierazitako erakunde eta kontuetan soilik egin daitezela.
 - g) Likidatzaileei eskatuko die likidazioa ahalik eta lasterren amaitzeko, bereziki prestazioak, zergak eta langileen ordainsariak ordaintzeari eta epai judizialak betetzeari dagokienez.
2. Kontu-hartzea amaituko da kontu-hartzea eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean edo likidazioa amaitzen denean.



3. Esku hartzeko erabakiak eta horien kargu-uztea Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan inskribatuko dira, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

